LANDARETZA MOTAK:

Euskal Herriko landaretza-aniztasuna zenbait aldagairen menpean dago: erliebea, klima, lurzoru-mota, argia, altitudea, orientazioa... Guk, ondoren, landaretza azalduko dugu barietate-klimatikoei lotuta.

Klima ozeanikoko eremuan hariztiak eta pagadiak dira berezkoenak. Haritza, 300-700 m bitartean egoki moldatzen da, batez ere lurzoru azidoetan (Adib.: Baztan); horrez gain, baso mistoetan ere ageri da beste zuhaitz-mota hauekin nahasian: lizarra, astigarra, gaztainondoa, zumarra... Pagoak, ordea, nahiago ditu lurzoru basiko karedunak, hezetasun handia eta altitudea, 700 m-tik gora, gehienbat.
Haritzak eta pagoak, asko bota ziren aro modernoan (ikatza, itsasontziak, etab. egiteko), eta hazkunde azkarreko beste espezie batzuk landatu ziren haien ordez: pinua eta eukaliptoa, adibidez.
Ibai erriberakoan, haltzadiak dira nagusi, lizarrak, sahatsak, etab. ohikoak izanik ere.
Azkenik, basoa degradatzean, sasitza atlantikoa ageri da: txilarra, isatsa, ote zuria...

Trantsizioko klimaren eremuan (Pirinioetako aurreko arroan), haranetako antzinako haritzak (*Quercus robur*) urriak dira gaur egun, astigar, lizar eta urkiekin nahasita.
Egun, ameztiak eta erkameztiak dira nagusi.
Ameztia (*Quercus Pyrenaica*) 600-900 m bitarteko altueran dauden lurzoru azidoetan dago, eguteran.
Erkameztia (*Quercus faginea*) baldintza eskasagoetara hobeto moldatzen da, nahiago ditu kareharrizko lurzoruak eta beste espezie batzuekin batera ere ageri da (elorri zuria, elorri beltza, huntza, ipurua).
Pinu gorriak, arteak eta pagoak ere ageri dira, altitude, orientazio eta lurzoru desberdinetan.

Klima mediterraneo kontinentalizatuaren eremuan, karraskadiak eta sastrakadi mediterraneoa dira nagusi (karraska, erkametza, gurbitza...). Hala ere, karraskadiak degradatzean, makia (abaritza), garriga (erromero, ezkaia) eta estrepa (espartzua) ageri dira
Hurrengoak ere ohikoak dira: Aleppo pinua (*P. halepensis*) eta erriberako landaretza (zumarra, lizarra, makala…).

Mendiko klimaren eremuan (Nafarroako ipar-ekialdean), pagadiak eta pinu gorriak dira nagusi.
Pagadiak hezetasun handiko isurialdeetan ageri dira, 600 eta 1.500 m bitartean (Adib.: Irati eta Urbasa).
Pinu gorrien pinudiak Pirinioetan ageri dira, 1.000 eta 2.000 m bitartean (Adib.: Erronkari). Batzuetan, pagadiak eta izeidiak nahasita ageri dira (Adib.: Irati).
Horiez gain, ohikoak dira, era berean, pinu beltzen pinudiak (Adib.: Larrako mendigunean), eta mendi larrea.